

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

URTEA: 2021/2022

GURASOEN BANAKETAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN GARAPENEAN DITUEN ONDORIOAK ETA HEZKUNTZAN EMATEN ZAION TRATAERA

EGILEA: Irati Sainz de la Maza Gamboa

ZUZENDARIA: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2022ko ekainaren 3 (e)(a)n

AURKIBIDEA

SARRERA	2
MARKO TEORIKOA	3
1. Zeri esaten zaio banaketa?	3
2. Banaketaren errealitatea gaur egun	4
3. Gurasoen banaketaren eragina seme-alabengan	5
4. Gurasoen banaketaren trataera eskolan	8
MARKO ENPIRIKOA	11
1. Helburua	11
2. Metodologia	12
2.1. Lagina	12
2.2. Tresna	12
2.3. Prozedura	13
2.4. Etika baldintzak eta pribatutasunaren babesa	13
3. Emaitzak	14
3.1. Irakasleen erantzunak	14
3.2. Gurasoen banaketa bizi izan zuten gazteen erantzunak	17
3.3. Gurasoen erantzunak	19
4. Ondorioak	21
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	24

**GURASOEN BANAKETAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN
GARAPENEAN DITUEN ONDORIOAK ETA HEZKUNTZAN EMATEN
ZAION TRATAERA**

Irati Sainz de la Maza Gamboa

UPV/EHU

Gurasoen banaketak askotan, ikasleengan eragina izaten du. Hori dela eta, lan honetan eragin horien nondik norakoak aztertzen dira. Errealitate hori kontuan hartuta eta gaien sakontzeko asmoz, hezkuntza esparruan ematen zaion trataera ikertu da irakasleen formakuntzan dauden gabeziak jakitera emanez. Ikerketa bideratzeko, kolektibo ezberdinei zuzendutako hiru galdetegi sortu dira: guraso, irakasle eta gurasoen dibortzioa bizi izan zuten gazteei. Emaitzek adierazi duten bezala, gaur eguneko ikasgeletan gurasoen banaketa bizi duten ikasleak dauden arren, ikastetxeetan ez dituzte egoerari aurre egiteko baliabiderik. Beraz, ondorio bezala, azpimarratzekoa da gai honen inguruan lan asko dagoela egiteko.

Gurasoen banaketa, hezkuntza, irakasleak, formakuntza, ikasleak.

Ocasionalmente la separación de los padres repercute negativamente en el alumnado. En este trabajo se analizan estos efectos y con el fin de profundizar en el tema, se ha investigado el tratamiento que se le da en el ámbito educativo. Para llevar a cabo la investigación, se han creado tres cuestionarios dirigidos a padres y madres, docentes y jóvenes que vivieron la separación de sus progenitores. Como indican los resultados, es una situación muy común, pero en los centros existe una carencia de recursos y formación para ofrecer apoyo a este alumnado, dejando a la vista el trabajo por hacer.

Separación de los padres, educación, profesorado, formación, estudiantes.

Sometimes parental separation has a negative impact on students. For this reason, this paper analyzes these effects and, in order to go deeper into the subject, the treatment given in the educational environment has been investigated. In order to carry out the research, three questionnaires were created for parents, teachers and young people who experienced their parents' separation. As the results indicate, in spite of being a very common situation, there is a lack of resources and training in the centers to offer support to these students, thus revealing the work that remains to be done.

The separation of parents, education, teachers, formation, students.

SARRERA

Gaur egun, gure gizartean oraindik bikoteen banaketak edo dibortzioak ematen dira. Askotan bikotekide hauek seme-alabak izaten dituzte, eta hauek ere, bikotearen banaketaren eraginak pairatzen dituzte. Eragin hauek seme-alaben bizitzako aspektu guztietan eragina izan dezakete, hala nola, haien ikaskuntza prozesuan. Hortaz, nahiz eta egoera hau gure gizartean ohikotzat hartzen den, hezkuntza arlotik ikasle hauen egoera kontuan hartu beharko litzateke.

Ikusita Lehen Hezkuntza graduan gai honen inguruan ez dela formakuntzarik ematen, Gradu Amaierako Lan honetan, gai honi behar zaion garrantzia emateko asmoz, gurasoen banaketak Lehen Hezkuntzako ikasleen garapenean dituen ondorioak, eta gaur eguneko hezkuntza sisteman ondorio hauei ematen zaien trataera aztertuko da. Horretarako, lanaren lehenengo fasean, gaiaren inguruan adituek egindako ikerketak eta baieztapenak aipatuko dira, eta ondoren gaur eguneko errealitateari erreparatuko zaio. Errealitate hori aztertzean, hiru talde hartu dira kontuan: irakasleak, guraso banaketa Lehen Hezkuntza garaian bizi izan zuten gazteak eta guraso banatuak.

Gaur eguneko errealitatearen inguruan ikerketa lana burutzeko aukeratu den tresna galdetegi izan da, aztertu nahi izan den talde bakoitzeko galdetegi bat diseinatuz. Hortaz, guztira 3 galdetegi egin dira. Galdetegi bakoitzak item kopuru ezberdina izan du, eta lortutako erantzunak modu kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertu dira.

MARKO TEORIKOA

1. Zeri esaten zaio banaketa?

Gaur egun, bikoteak haien artean bizitza eta interes komunitate bat eratzeko eta mantentzeko, ezkontza zibilaren zein erlijiosoaren bidez ezkondu egiten dira. Ezkontza zibila aukeratzen dutenek zuzenbide zibilaren arabera ezkontzen dira, ezkontza erlijiosoan ez bezala erlijio agintaritzaren esku-hartzerik gabe (Real Academia Española, 2020). Dena dela, XXI. mendearen hasieran ezkontzatik kanpoko bizikidetzak asko handitu da, hau da, izatezko bikoteak sortzen ari dira eta gero eta ohikoagoak dira. 2020an izatezko bikotea osatzen zutenen kopurua %16,2koa izan da (INE, 2021)

Errealitate hau ezkontzaren alternatiba gisa erabiltzen da (Domínguez-Folgueras eta Castro, 2013, Castro eta Seiz, 2014-tik hartuta). Izatezko bikoteak elkarrekin bizi dira eta ezkontzaz kanpoko harreman egonkorra dute, eta erregistroan erregistratzen dira (Álvarez, 1998).


Azpiparratzekoa da ezkonduetako edo elkarrekin bizi diren bikoteen lotura hori arrazoi ezberdinengatik ez dela betiko izan behar, eta egoera horietan bikotearen banaketa gertatzen dela. Banatzeak legez aitortutako bi ezkonkideen elkarbizitza bertan behera uztea dakar baina ezkontza lotura ez da desagiten (Crespo, 2021).

Dena den, ezkonduetako bikoteek banaketa ez den beste irtenbide bat aukeratu dezakete: dibortzioa. Dibortzioa ezkontza lotura desagiten duen erabaki judiziala da, ezkonkideen arteko oinordetza eskubideak, alargun pentsioa eta ezkontzatik eratorritako betebeharrak galtzea suposatzen duena (Eustat, d.g, Divorcio, paragrafo 1).

Dibortzioaren historian pixka bat sakontzeko, Bigarren Errepublika garaira joan behar gara. 1932. urteko martxoaren 2an Espainiak gertakizun historiko bat bizi izan zuen: bikote ezkonduen dibortzioa onartzen zuen legea indarrean sartu zen (Aguado, 2005). 10 egun geroago “La Gaceta de Madrid”-en, gaur eguneko BOE izango zena, martxoaren 2ko dibortzioaren legea argitaratu zen (Lege organikoa 2/1932, martxoaren 12a, dibortzio legea). Lege hau 1939. urteko irailean erregimen frankistarekin indargabetu zuten, eta 1981. urtera arte dibortzioa ez zen onartuta egon (Castaño-Peñalva, 2016).

2. Banaketaren errealitatea gaur egun

Espanian dibortzioaren legalizazioarekin 2000. urtera arte dibortzio edo banaketa prozesuetan sartu ziren pertsonen kopurua dezente igo zen (Fernandez eta Godoy, 2002). Baina 1. Grafikan ikusten den bezala azkeneko 12 urteetatik gaur egunera dibortzioak gutxitu egin dira. 2020an ikusten den moduan beherakada inoiz baino handiagoa izan zen. Hau COVID19-ak eragindako konfinamenduagatik izan zen, izan ere, momentu hartan biztanleria etxean konfinatu behar izan zen, eta epe horretan jarduera judizialak geldialdia izan zuen (Sosa, 2021).



1. Grafika: Espainiako banaketen eta dibortzioaren garapena (CGPJ, epdata, 2021-tik).

EAEn ere errealitate honen aurrean topatzen gara: bikotekideen banaketak jaitsi egin dira (Eustat, d,g). Hau bikotekideen arteko ezkontzak gutxitu egin direlako gertatzen ari da, hau da, gero eta aruntagoak dira ezkontzaren legezko esparruaz kanpoko bikoteen eraketak (Castro eta Seiz, 2014). Hortaz, datu hauetan oinarrituta esan daiteke legearen aurrean ofizialki banandu diren bikoteen kopurua ez dela benetan banandu diren bikote guztien kopurua, izan ere, izatezko bikote hauek ez dute banaketaren berri eman behar.

Hala ere, grafikoan ikusten den moduan, urtean zehar ofizialki banandu eta dibortziatzen diren bikoteen kopurua nahiko handia da. Horregatik, agerikoa da bikoteen dibortzioa zein banaketa gure egungo familia eta gizarte errealitatearen parte dela, eta gero eta ohikoagoa den egoera bihurtzen ari dela (Fernandez eta Godoy, 2002).

Errealitate hau argi dago ez diola bakarrik bikotekide bakoitzari eragiten, bere ingurua ere kaltetuta ikus daiteke; hala nola, elkarrekin dituzten seme-alabak. Espainian urtero 50.000 umeren gurasoak banatu edo dibortziatzen dira (Peraita, 2015, paragrafo 1.).

3. Gurasoen banaketaren eragina seme-alabengan

Seme-alabentzat familia garrantzitsuena da eta oso txikitatik, lotura afektibo sendoak ezarri egiten dituzte familiako kideekin. Horrez gain, haurren hazkuntzarako eta sozializaziorako lehen testuingurua familia da. Horregatik, gurasoen arteko harremana eredutzat hartzen dute haien portaera eta izaera finkatzeko (Muñoz-Ortega et al., 2008).

Gurasoen banaketa ematen denean seme-alabengan eragin zuzena izaten du. Seme alaben pertzepzioa erabat aldatzen da, hau da, gurasoengandik babestuta sentitzetik guztiz zaugarri sentitzera pasatzen dira, batez ere etxean bizitzen jarraitzen ez duen gurasoaren abandonua sentitzen dutelako (Muñoz-Ortega et al., 2008). Gurasoen banaketak dakarren inpaktuaz gain, haurrak bizikidetzara berrietara egokitzea eta beren errutinak, bizimodua eta askotan bizilekua aldatzea behartuta egoten dira. Honek umeei ezegonkortasun sentazioa sorrarazten die, eta horrekin batera hainbat eragin emozional negatibo ere bai (Gianella eta Pérez, 2004, Cifuentes eta Milicic, 2012-tik hartuta). Cifuentesek eta Milicicek (2012) haien ikerketan oinarrituta, adierazten dute banaketatik 2 edo 3 urtera seme-alabek egoera beste ikuspuntu batetik ikusten dutela. Woolfolkek (2006) adierazten du denborarekin haurren %75-80a egoera berri horretara pixkanaka-pixkanaka nahiko ondo egokitzen direla (Robledo, 2010-tik hartuta). Hala ere, gurasoen banaketa seme-alabak adingabeak direnean gertatzen denean, sortzen diren eragin emozional negatibo horiek haurrek helduaroan sortuko dituzten lotura afektiboetan eta izango duten osasun mentalean arrastoa utzi ditzakete, izan ere, haurtzaroan gurasoen banaketa bizi izan duten pertsonak ezegonkorak eta segurtasun falta handia izateko probabilitate handiagoa dute, eta harreman egonkorak izateko zailtasun gehiago izan dezakete abandonuaren beldur baitira (Czernin eta Largo, 2005; Guerrero, 2003; Muñoz-Ortega et al., 2008).

Dibortzioak zein banaketak haurrengan sortzen dituen eragin emozional negatiboetan sakontzeko, ohikoenak diren sentimenduak aipatu behar dira: segurtasun falta, haserrea, autoestimua baxua, oldarkortasuna, amorrua, ezintasuna, haien gurasoen banaketaren errudun sentitzea, estresa, tristura, besteen iseken eta onartuak ez izatearen beldurra, lagunenganako inbidia eta antsietatea (Cifuentes eta Milicic, 2012; Czernin eta Largo, 2005; Fernandez eta Godoy, 2002; Guerrero, 2003). Haurrek bizi duten sufrimendua eskola-errendimenduaren bidez adierazi dezakete, ez direlako gai hitzekin sentitzen dutena azaltzeko. Horregatik, antsietateak eraginda errendimendu akademikoan eta besteekiko interakzioan arazoak izatea nahiko ohikoa izaten da. Horrez gain, banaketak haurrak garapenaldi berdinean denbora luzez gelditzea ekar dezake, baita haien garapen ebolutiboan lortutako estadioetara bueltatzea ere (erregresioak) (Cifuentes eta Milicic, 2012; Fernandez eta Godoy, 2002).

Aurretik aipatutakoaz gain, azpimarratzekoa da haur guztiek egoera horri ez diotela modu berdinean erantzuten, eta izan ditzaketen ondorioek ez dute zertan epe luze batean larriak eta konponezinak izan. Gurasoen banaketaren aurrean dituzten jarrera eta sentimenduak ez daude haurren izaerarekin eta egoerari aurre egiteko dituzten gaitasunekin bakarrik erlazionatuta, kanpo faktore batzuek ere eragin garrantzitsua izaten baitute. Horren adibideak gurasoek egoera berri horretara moldatzeko erakusten duten jarrera edo gurasoen arteko gatazka maila dira (Morgado, 2003). Ideia honekin bat eginez, Cominok (2012) bere ikerketa lanean oinarrituta, banaketa, gurasoen arteko gatazka, haurraren egunerokotasuneko aldaketak edo gurasoen arazo psikologikoak bezalako arrisku-faktore batzuekin lotzen denean baino ez dela arazoa adierazten du. Hau da, gurasoek gaizki kudeatzen duten banaketa haurraren jokabide-arazoak ekar ditzake. Gurasoak, berriz, egoera berrira ondo moldatzen badira, seme-alabek berdin egingo dute (Portugal, 2012).

Bestalde, gurasoen banaketak sortzen dituen eragin emozionalak eta inpaktua adinaren, garapen aldiaren eta generoaren arabera aldatzen da (Fernandez eta Godoy, 2002). Laburbilduz, gurasoen banaketak sortzen dituen eraginak hurrengo faktore hauen arabera izango dira: familia, testuingurunea eta banakako ezaugarriak (Fariña et al., 2001).

Seme-alabek, gurasoak banatzen direnean, dauden garapen fasearen arabera, egoera gatazkatsu horren aurrean erantzun ezberdinak ematen dituzte. Haur eskolako umeei (3-5 urte) ez dute banaketaren kausak aztertzeko eta banaketaren kontzeptua ulertzeko gaitasunik. Egoera hori denboraldi jakin baterako izango delakoan daude. Maiz gurasoen banaketaren errudunak direla adierazten dute, eta honek antsietate handia, tristura eta abandonuaren beldurra izatea sorrarazten die. Hori dela eta, aldi honetan, askotan guztiz desagertutako portaerak berriro agertzen dira, adibidez, hatz lodiaren zurrupatzea, ohean pisa egitea eta gauean txarto lo egitea. Hau gertatzen denean portaera erregresiboak dituela esaten da (Cantón et al., 2002; Morgado, 2003).

Eskola adinari (6-12 urte) dagokionez, nagusiki bi aldi bereizten dira: 6-8 urte eta 9-12 urte. 6-8 urteko haurrak banaketaren esanahia ulertzeko gai dira, baina ez dute gatazkari aurre egiteko gaitasuna lortu. Antsietatea gutxira doan arren, oraindik tristura eta pena bezalako sentimenduak izaten jarraitzen dute. Gainera, leialtasun gatazka izaten dute, hots, ez dakite bietako nori izan leiala eta batekin edo bestearekin oldarkorragoak

izaten dira (García, 2018; Morgado, 2003). Eskola adineko bigarren aldian (9-12 urte), umeek gurasoen banaketaren kausak eta ondorioak ulertzeko gaitasuna dute, eta honekin gatazkak bukatuko direla pentsatzen dute. Pixkanaka banaketaren errudun sentitzeari uzten diote, eta bikotekide bati edo biei horren errua botatzen diote. Hori dela eta, askotan gurasoetako batekin alienatzeko arriskua ematen da. Ordurako, gurasoen adiskidetzearekin zerikusia duten amets eta fantasiak alde batera uzten dituzte, eta lagunekin horren inguruan hitz egiteko gai sentitzen dira (Fernandez eta Godoy, 2002; García, 2018).

Umeek banaketaren aurrean dituzten portaerak eta emozioak generoaren arabera aztertuta, Cantón et al., (2002)-ek adierazi dutenez, semeengan alabengan baino ondorio negatiboagoak antzeman dira, batez ere gurasoak banatu eta urte batzuk igaro ondoren. Alabek denbora gutxiagoan egoera berrira hobeto moldatzen dira. Orokorrean, semeek portaeran arazoak izaten dituzte: oldarkortasuna, jarrera desafiatazile eta bortitza. Alabek, berriz, ezinegon psikologikoak pairatzen dituzte: depresioa, autoestimu baxua, antsietatea eta tristura (Cantón et al., 2002).

Gurasoen arteko gatazkek muturreko beste eragin batzuk ekar ditzakete, adibidez, Gurasoen Alienazio Sindromea (Gardner, 1985, Arch, 2010- tik hartuta). Sindrome hau guraso baten manipulazioaren ondorioz sortzen da. Manipulazio horrekin seme-alabek berarekin lotura estuagoa izatea eta bestearekiko arbuioa sentitzea lortu nahi da (García, 2018). Guraso horrek umearen pertzepzioa eta pentsamenduak aldatzeko estrategia ezberdinak erabiltzen ditu; esate baterako, haurrak mehatxatzea beste gurasoari deitzen edo idazten badiote, hauen aurrean beste gurasoari zuzendutako irainak esatea edo beste gurasoak erositako arropa zein opariak mespretxatzea (Segura et al., 2006). Alienazio-sindromea umeengan eragitea indarkeria emozionalaren adibidea bat da, eta haurrengan maila emozional, akademiko eta sozialean eragin kaltegarriak izan ditzake (Tejedor, 2015).

4. Gurasoen banaketaren trataera eskolan

Gurasoak banatzen direnean haurrak zuzenean gatazka horretan sartuta egoten dira, eta horrek eragin batzuk izaten ditu, askotan arrazoi ugariengatik gurasoak ikusten ez dituztenak (Robledo, 2010). Arrazoi horien adibideak hurrengoak dira: alde batetik,

arreta bikotearen arteko gatazkan bakarrik jartzen dute; bestetik, lan baldintza eta ordutegi kaskarrak izaten dituzte eta, ondorioz, ez dute beharko luketen denbora izaten seme-alabei eskaintzeko. Gainera, seme-alaben eguneroko portaeretan ez dute arduratu beharko luketen ezer ikusten eta, gertatzen ari denak ez daukala haiengan eraginik pentsatzen dute.

Etxean egoera hau bizi duten ikasleen bi hereni eskola giroan eta ikaskideekin dituzten harremanetan aldaketak antzematen zaizkie, eta irakasleak izaten dira aldaketa hauetaz ohartzen direnak (Robledo, 2010). Eskolan ikusten diren portaera aldaketa hauek bi motatakoak izan daitezke: afektibo emozionalak eta ikaskuntza prozesuan ematen direnak. Afektibo emozionalen barruan negar egiteko erraztasuna, banaketak sortzen duen antsietateak eraginda eskolako helduekiko atxikimendu desegokia edo gero eta ikaskide gutxiagorekin jolastea eta erlazionatzea aurki ditzakegu (Castells, 2004, Ortega, 2016-tik hartuta; Robledo, 2010). Ikaskuntza prozesuan ematen diren aldaketetan, berriz, lan egiteko motibazioa eta interesa galtzea, materialak gehienetan ahaztea, energia maila baxua, klasera ez etortzea edo arreta mantentzeko zailtasuna izan daitezke (Robledo 2010).

Benedek-ek eta Brown-ek (1999) aipatzen dute ikasleei, sarritan, nahiko zaila egiten zaiela irakasleei jasaten ari diren egoeraz jakinaraztea, baztertuta edo besteengandik ezberdina sentitzeko beldur direlako (Ortega, 2016-tik hartuta). Horregatik, irakasleak banaketara egokitzeko zailtasunekin lotuta dauden jokabideak detektatzeko eta, gurasoekin behar bezala komunikatzeko gaitasuna garatuta izatea ezinbestekoa da. Honi esker, haurraren garapenean hobekuntza nabariak egongo lirateke. Azken finean, haurraren garapen psikologikoa eta kognitiboa bermatzeko haurraren mikrosistemaren inplikazioa eta parte hartzea ezinbestekoa da (Musitu, 2004, Robledo, 2010-tik hartuta). Bronfenbrennerrek mikrosistema hori umearen garapena ematen den inguru hurbilena bezala definitzen du, eta familiak, gurasoek eta eskolak osatzen dute (Gifre eta Guitart, 2012).

Irakaslearen funtsezko papera dela eta, Robledo (2010) eta Parkinson (2005) bezalako egileek irakasleak familiaren bitartekari informalaren rola hartzea proposatzen dute. Horretarako, irakasleak ahal den neurrian bi gurasoekin batzarrak egitea proposatzen dute. Batzarrean guraso bakarra egoten bada, momentu guztian beste gurasoaren irudia errespetatu beharko litzateke. Horregatik, komenigarria da irakaslea bikotearen

gatazkaren aurrean inpartzial mantentzea eta neutroa izatea, eta ziurtatu behar du bi gurasoek beren seme-alaben prozesuari buruzko informazio bera jasotzen dutela (Parkinson, 2005). Batzar hauetan bi gurasoek haurren onurarako akordioak eta erabakiak hartzen dituzte, eta noski, biak hauekin ados egon behar dira. Azken finean, bitartekaritzaren helburua gurasoen arteko komunikazioa hobetzea eta haurraren garapena sustatzeko eta hura babesteko adostasun zehatzak lortzea da (Presas, 2007). Horretaz gain, garrantzitsua da haurraren tutoreak gainerako irakasleekin eta zuzendaritza taldearekin beharrezko komunikazioa mantentzea, batez ere izan daitezkeen nahasteak edo zailtasunak saihesteko (Escalona, 2014).

Hala ere, aurretik aipatutakoa askotan ez da hain erraza. Alde batetik, irakasleek zailtasunak eta komunikazio oztopoak aurkitzen dituzte gurasoekin. Batzuetan, gurasoek ez dute haien egoera berriaz informatzen, eta horren ondorioz, irakasleak ikaslearen familia egoera berria ezagutu barik geratzen dira (Dowling eta Gill Dorell, 2008, Robledo, 2010-tik hartuta).

Bestetik, irakasle guztiak ez dira gai sentitzen gurasoekin biltzeko, ezta batzar horietan banaketak sor ditzakeen momentu deserosoei aurre egiteko ere. Are gehiago, batzuek ez dute euren burua prest ikusten egoera horretan dauden ikasleei laguntzeko. Irakasleen sentimendu hau oso ohikoa da formakuntza aldian ez dituztelako gai honen inguruan inolako formakuntzarik eta heziketarik jaso. Hortaz, egoera horren aurrean ez dakite nola jokatu (Parkinson, 2005). Horretaz gain, badaude irakasle batzuk uste dutenak ez dela euren eginkizuna egoera hauetan jardutea eta ez daude beti elkarlanerako prest eta alde egoten (Domínguez, 2010).

Dena den, irakasleek bitartekariaren rola hartzea ez litzateke izan behar ikasleei laguntzeko modu bakarra. Izan ere, psikologoek lana ezinbestekoa izan liteke laguntza osatuago bat eskaini ahal izateko. Horregatik, eskoletan psikologo baten lana guztiz komenigarria da eta zenbait familiek jada beren seme-alaben ikastetxeetan psikologia profesionalen presentzia eskatu dute (Ollero, 2015).

Eskoletan psikologoak integratzean, gurasoen banaketak ikasleengan sortutako arazo psikologikoak goiz detektatu ahal dira, baita esku hartze egokiak martxan jarri ere. Honela, arazo horien agerpena eta etorkizunean horrek ekar ditzakeen eragina murriztu ahalko luke (Ollero, 2015). Gainera, psikologia profesionalen, irakasleen eta familien

arteko lotura honek, hezkuntza komunitatearen barruan taldean lan egiteko aukera ematen du. Profesional ezberdinen eta familien arteko elkarlan honi esker haurren garapen egokia sustatuko litzateke (Rogers Hall, d.g).

Beraz, ezinbestekoa da ikastetxeetan haur hauei erantzuna emateko estrategiak, programak, esku-hartzeak... izatea. Euskal Herria mailan, adibidez, Deustuko Unibertsitateko ikerketa talde batek, FamilyPsych, Egokitzen programa psiko hezitzailea diseinatu du. Programa hau banantze edo dibortzio prozesuan dauden gurasoentzako zuzenduta dago, eta prozesu horrek haien seme-alabengan eragindako estresa gutxitzeko ezagutza eta trebetasun egokiak garatu ditzaten saiatzen da (Sanz et al., 2011). Ikerketa talde honek hezkuntza munduko profesionalei bideratuta dagoen gida ere diseinatu du: Eskolako praktika egokien eskuliburua banaketa egoeretan. Gida honen helburu nagusia da beren familietan banaketa jasaten ari diren hurrei laguntzeko eta bizi duten prozesua hobeto ulertzeko, irakasleentzat lagungarriak izan daitezkeen jarraibide batzuk ematea (Sanz et al., 2011).

Euskal Herrian programa hau diseinatuta egon arren, oraindik gurasoen banaketa lantzen dituzten programen eta esku-hartzeen falta dago. Horretaz aparte, irakasleen formakuntza dela eta, gabezia nabaria da arlo honetan, eta horregatik garrantzitsua da gaiaren inguruan ikertzen jarraitzea, eta eman beharreko inportantzia ematea.

MARKO ENPIRIKOA

Jarraian burututako ikerketa lanaren nondik norakoak azalduko dira, hala nola, helburua, metodologia, emaitzak eta ondorioak. Horrez gain, ikerketa egin ondoren atera diren ondorioak azalduko dira.

1. Helburua

Ikerketa lanaren helburua banaketaren errealitatea ezagutzea, eta hezkuntzan ematen zaion trataera aztertzea izan da. Horretarako, hiru galdetegiren bidez, egoera hau bizi izan duten pertsonen ikuspuntu desberdinak jaso dira: guraso banatuak, guroasoen banaketa bizi izan duten gazteak, eta irakasleak.

2. Metodologia

2.1. Lagina

Ikerketa lana egiteko sortutako galdetegietan parte hartu duten kideen kopurua hurrengoia izan da:

- 68 irakasle, %73,5 (n = 50) emakume eta %26,5 (n = 18) gizon.
- 24 gazte, %58,3 (n = 14) emakume eta %41,7 (n =10) gizon, haien Lehen Hezkuntzako garaian gurasoen banaketa bizi izan zutenak.
- 15 pertsona banatuak.

Irakasleen adinari dagokionez, datuak hurrengoak dira: % 44,1 (n=30) 20-30 urte bitartekoak; % 19,1 (n=13) 31-40 bitartekoak; % 11,8 (n=8) 41-50 bitartekoak eta % 25 (n=17) 50 urte baino gehiagokoak. Horrez gain, haien lan esperientzia hurrengoia izan da: % 38,2 (n=26) 5 urte baino gutxiagokoa; % 13,2 (n=9) 5-10 urtekoa; % 12,3 (n=9) 11-15 urtekoa; % 5,9 (n=4) 16-20 urtekoa; % 7,4 (n=5) 21-25 urtekoa eta gainontzeko % 22,1ak (n=15) 25 urte baino gehiagokoa.

Irakasleek lan egiten zuten eskola motei dagokienez, % 39,7k (n=27) publikoan lan egiten zuen; % 2,9k (n=2) pribatuan eta gainontzeko % 57,4ak (n=39) itunpekoan.

Bestetik, gazteen gaur eguneko eta gurasoak banandu zirenean zuten adinari dagokionez, datuak hurrengoak dira:

- Gazteen gaur eguneko adina: % 8,3k (n=2) 18-20 urte; % 33,3k (n=8) 21-22 urte; % 45,8k (n=11) 23-24 urte; % 8,3k (n=2) 25-27 urte eta beste % 4,1ak (n=1) 30 urte.
- Gurasoak banandu zirenean zuten adina: % 12,5ek (n=3) 2-4 urte; % 20,8k (n=5) 5-6 urte; % 16,7k (n=4) 8-9 urte; % 37,5ek (n=9) 10-11 urte eta beste % 12,5ak (n=3) 12 urte.

2.2. Tresna

Ikerketa gauzatzeko hiru galdesorta sortu dira: “Gurasoen banaketaren trataera Lehen Hezkuntzan”, “Gurasoen banaketa Lehen Hezkuntzako garaian” eta “Guraso banatuen esperientzia”. Aipatutako lehenengoa, hezkuntzako irakasleei bideratuta egon da, bigarrena, berriz, Lehen Hezkuntza garaian gurasoen banaketa bizi izan zuten gazteei

bideratuta, eta azkenik, hirugarrena banatuta dauden gurasoei zuzenduta. Zenbat eta erantzun gehiago lortzeko asmoz, hiru galdetegiak euskeraz eta gaztelaniaz egin dira.

“Gurasoen banaketaren trataera Lehen Hezkuntzan” galdetegia 11 galderaz osatuta egon da (1. *Eranskina*). Galdera horietatik 9 itxiak dira, beste biak, ordea, galdera irekiak. 6 eta 7 galderak bereziak izan dira, izan ere, itxiak izan arren, partaideek erantzunarekin zerikusia duen edozein ekarpen egin ahal izan dute. 8.ak ere berezitasun bat izan du. Izatez galdera itxia da erantzuteko bi aukera ematen dituelako, “Bai” edo “Ez”, baina “Bai” aukera hautatuz gero, galdetegia erantzun dutenek aukeraketa horren zergaitia adierazi behar izan dute.

“Gurasoen banaketa Lehen Hezkuntzako garaian” galtegiak 9 item izan ditu (2. *Eranskina*). Horietatik 4 galdera itxiak dira, beste 5 itemak, aldiz, galdera irekiak.

Hirugarren eta azken galdetegiak, “Guraso banatuen esperientzia” hain zuzen ere, 7 galdera izan ditu: 3 irekiak eta 4 itxiak (3. *Eranskina*). Hala ere, 2. eta 3. itemak galdera itxiak diren arren, eta partaideek erantzuteko bi aukera soilik izan dituzten arren (“Bai” edo “Ez”), erantzuna baiezkoa izan denean azalpena emateko aukera izan dute.

2.3. Prozedura

Ikerketa lana egiteko lehenengo eta behin galdetegiako galderak pentsatu eta tutorearekin adostu ziren. Honen oniritzia izandakoan galdetegiak Google Forms programarekin sortu ziren. Behin hori eginda, galdetegia WhatsApp Messengerren, korreoaren eta Instagram sare sozialaren bidez zabaldu zen. Galdetegien hedapenarekin hasi eta hiru asteetako tartea eskaini zen ahalik eta erantzun gehien lortu ahal izateko.

Emaitzen azterketa dela eta, irekiak izan diren galderen erantzunak modu kualitatiboan aztertu dira, eta itxiak izan diren galderenak, berriz, modu kuantitatiboan.

2.4. Etika baldintzak eta pribatutasunaren babesa

Pribatutasun oharrari dagokionez, galdetegi bakoitzaren barruan galdetegiaren helburua eta etika baldintzak beteko zirela azaltzen zuen atala sortu zen. Honetan, jasotako datu guztiak xede akademikoetarako soilik erabiliko zirela, eta parte hartzaileen pribatutasuna une oro errespetatuko zela azaltzen zen (1. *Eranskina*, 2. *Eranskina* eta 3. *Eranskina*).


3. Emaitzak

Emaitzak aztertzeko hiru galdetegietan lortutako erantzunak aipatuko dira. Lehenengo irakasleei zuzendutako galdetegia aztertuko da, ondoren, gurasoen banaketa bizi izandako gazteena, eta bukatzeko, guraso banatuei bideratutakoa.

3.1. Irakasleen erantzunak

Laginaren ezaugarriak ezagutzeko, adinaren, generoaren, lan esperientziaren eta lan egiten zuten eskola motaren inguruan galdera batzuk egin zitzaen. Jarraian, gurasoen banaketaren gaiaren ildotik, gaur eguneko ikasgeletan dagoen errealitatea ezagutzeko bosgarren galdera egin zitzaien (“Zure ikasleen artean ba al dago gurasoen banaketaren prozesua bizitzen ari den edo bizi izan duen norbait?”). Lortutako emaitzekin argi eta garbi ondoriozta daiteke gaur eguneko ikasgeletan gurasoen banaketa prozesua bizi ari diren edo bizi duten ikasleak daudela, izan ere, laginaren % 92,6k (n=63) galderari “Bai” erantzun zion. Alabaina, “Ez” aukeratu zutenak badaude, laginaren % 4,4 (n=3) hain zuzen ere. Horretaz aparte, laginaren % 2,9k (n=2) “Ez dakit” aukeratu zuen.

Seigarren galderarekin, gurasoen banatze prozesua bizi zutenen ikasleen portaeran aldaketak nabaritu zituzten ala ez ezagutu nahi izan da (“Baloratu 1etik (bat ere ez) 5era (aldaketa oso nabariak) zein puntutaraino nabaritu dituzun aldaketak gurasoen banaketa bizitzen ari diren edo bizi izan duten ikasleen portaeran”). Emaitzekin lortutako grafika hurrengoa izan zen:



2. Grafika: Baloratu 1etik (bat ere ez) 5era (aldaketa oso nabariak) zein puntutaraino nabaritu dituzun aldaketak gurasoen banaketa bizitzen ari diren edo bizi izan duten ikasleen portaeran.

Behin seigarren itema erantzun zutela, haien erantzuna azaltzeko aukera izan zuten. Erantzunen artean errepikatuen denetarik bizi izan dutela izan da, hau da, ikasle

batzuetan aldaketa nabariak ikusi dituzte, bestetan, berriz, ez. Zenbaitek adierazi dute eragin handia duela familian nola eraman den banaketa prozesua, eta gurasoen arteko harremana. Hala ere, aldaketak ikusi dituzten partaideen artean, aipatuena hurrengoak izan dira: emozionalki desoreka handia adieraztea, arreta falta izatea, tristuraren agerpena, eta irakasleengandik arreta handiagoa eskatzea.

Zazpigarren iteman partaideek gurasoen banatze prozesua bizi zutenen ikasleen errendimenduan aldaketak nabaritu zituzten ala ez adierazi behar izan zuten (“Baloratu 1etik (bat ere ez) 5era (aldaketa oso nabariak) zein puntutaraino nabaritu dituzun aldaketak gurasoen banaketa bizitzen ari diren edo bizi izan duten ikasleen errendimendu akademikoan”). Laginaren % 10,3k (n=7) ez zituela aldaketarik ikusi adierazi zuen, izan ere, “1” edo “2” baloreak aukeratu zituzten. % 38,2k (n=26) aldaketa batzuk ikusi zituela erantzun zuen “3” balioa aukeratu baitzuten, eta gainontzeko % 51,4ak (n=35), berriz, “4” edo “5” baloreak aukeratu zituen, aldaketa nabariak izan zirela adieraziz.

Aurreko itemean bezala, partaideei erantzunaren inguruan nahi zutena azaltzeko aukera eman zitzaien. Ekarpenean artean aldaketa aipatuena lanarekiko interes eta arreta falta izan dira. Hala ere, ume bakoitza ezberdina dela, eta haien familian dagoen egoerak errendimendu akademikoan eragina izan ahal duela aipatu dute: “Gaizki amaitu duten gurasoen seme-alabek beraien errendimendua nabarmen jaitsi dute, etxean ez dutelako egoera egokirik eguneroko lanak egiteko”, “Gurasoek zelan eramaten duten eta euren arteko harremanak eragina izan du”. Horretaz aparte, partaide batek ikasleen adinari erreparatu zion azaltzeko errendimendu akademikoan aldaketarik ez zituela ikusi: “Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleak zirenez, kontzeptu berriak etengabe lantzen ez zirenez, eragin pertsonala nabarmenagoa zen akademikoa baino”.

Zortzigarren iteman, haien formakuntzaren inguruan galdetu zitzaien (“Prestakuntzarik jaso al duzu banaketak ikasleei nola eragin diezaiekeen jakiteko?”). Laginaren % 95,6k (n=65) “Ez” erantzun zuen, % 4,4ak (n=3), berriz, “Bai”. Baietz erantzun zutenei zein formakuntza jaso zuten azaltzeko eskatu zitzaien, eta erantzunen artean hauek egon ziren: “Unibertsitatean jasotako kurtsoak”, “Gaiari buruz irakurtzea eta gai legalei buruzko hitzaldia”.

Jarraian, hurrengo itemarekin irakasleei formakuntza planetan edo programetan banaketaren trataerak izan beharko lukeen garrantzia baloratzeko eskatu zitzaizen (“Baloratu 1etik (gutxi) 5era (asko) banaketaren trataera ikastetxeetan izan beharko lukeen lehentasuna irakasleen formakuntza planetan eta programetan”). Emaitzak hurrengoak izan ziren: Laginaren % 8,8k (n=6) lehentasun gutxi (“1” edo “2”); % 27,9k (n=29) erdi mailako lehentasuna (“3”) eta gainontzeko % 63,3ak (n=43) lehentasun handia (“4” edo “5”).

Hamargarren iteman, egoera honetan dauden ikasleei laguntzeko, irakasleek zein behar dituzten zehaztu ahal bazuten galdetu zitzaizen (“Banaketa bizi duten ikasleei laguntzeko, irakasleok dituzuen beharrak zeintzuk diren zehaztu dezakezu?”). Erantzunen artean azpimarratuena formakuntza izan da: “Ikasleengan izan dezakeen eragina eta horren aurrean zelan erantzun pautaren bat izatea”, “Egoera ezberdinen aurrean ekiteko jarduerak edo ekintzak ikastea ongi egongo litzateke”, “Arlo emozionala eta afektiboa lantzeko estrategiak”. Horrez gain, ikasle hauekin hitz egiteko, elkarlana sustatzeko eta entzuteko denbora gehiago izatea aipatu da. Honekin lotuta, ratioen murrizketa ere aipatu da.

Batzuk giza-baliabide gehiagoren beharra azpimarratu dute: “Zentroko psikologoaren laguntza ezinbestekoa ikusten dut”, “Giza-baliabideak (arlu horietan ezagutza dutenak) ikastetxean izatea”. Bestalde, irakasleek ikasleengan enpatia erakusteari garrantzia eman diote, baita eskola-familiaren arteko harremanari ere: “Bi gurasoengandik egoeraren berri izatea”, “Familiaren egoera/informazioa ezagutzea”. Honen harira, partaide batek ikasgela barruan eman daitekeen egoera horri aurre egiteko, irakasle batek ebatzi beharko lituzkeen galdera batzuk planteatu zituen: “Guraso banaduen arteko harremanak onak ez direnean nola bideratu gurekin dituzten bilerak? Nola enfokatu hainbat gai ikasleekin "inpartziala" izateko? Eta guraso baten aldeko iritzia duzunean, nola tratatu hainbat gai ikaslea kontzientea ez izateko? Ala zure iritzia ezagutu behar du ikasleak?”. Item honekin bukatzeko, esku-hartze planen baten presentziaren beharra ere aipatu da: “Kasu bakoitzean jarduteko banakako protokolo bat inplementatzea, ikasleari lagundu ahal izateko”, “Formakuntza, laguntzeko plan edo programa bat zehaztu eta martxan jarri”.

Hamaikagarren eta azken galderan, partaideei haien irakasle ibilbidean, egoera honetan egon diren edo dauden ikasleekin erabiltzeko programarik edo materialik ezagutu duten

galdezu zitzaien (“Zure irakasle ibilbidean edo gaur egun lan egiten duzun ikastetxean, gurasoak banatze prozesuan dituzten ikasleekin lan egiteko programarik edo materialik ezagutu al duzu? Horrela bada zein?”). Laginaren % 86,8k (n=59) ez duela inoiz ezagutu horrelako programa edo materialik erantzun zuen, beste % 13,2ak (n=9), berriz, baietz esan zuen. Baietz esan zutenen artean materialei dagokienez, ipuinak eta eskolako PTak erraztutako liburuxkak aipatu ziren. Partaide baten kasuan, bere ikastetxean “banatze kasu bat gertatzen den bakoitzean PT-a familiarekin biltzen da etxeko egoera nolakoa den ulertzeko, eta ondoren ikaslearekin hainbat jarraipen saio egiten dira”.


3.2. Gurasoen banaketa bizi izan zuten gazteen erantzunak

Gazteen adinaren eta generoaren inguruan hiru galdera egin ondoren, partaideek gurasoen banaketan bizi izandako sentimenduak ezagutzeko laugarren itema egin zen (“Gogoratzen dituzu zure gurasoen banaketa prozesuan izan zenituen sentimenduak? Zeintzuk izan ziren?”). Erantzunen artean, aipatuenak diren sentimenduak tristura, amorrua eta nahasketa izan dira. Oso aipatua izan den beste sentimendu bat, bizitzen ari ziren egoeraren zergatia ez ulertzea da. Horrek gurasoak beste bikotekide batekin egotearen ideia ukatzea eragiten zuela adierazi dute: “Sentitzen nuen ez nuela zergatia ulertzen. Gurasoek beste pertsona batzuk ezagutzeak eta geneukan lotura apurka-apurka aldatzeak arbuiatu egiten ninduen. Ez nuen banaketa onartzen, elkarrekin egotea nahi nuen”. Horretaz aparte, beste partaide batek gurasoak sufritzen ari zirela ikustean errudun sentimendua izan zuela aipatu du: “Oso txikia nintzen, baina gogoan dut aita negarrez ikusten nuela eta errudun sentitzen nintzela”. Bestalde, gurasoen banaketaren ondorioz, haien etorkizunaren beldur zirela adierazi dute, ezinegona eta aldaketei aurre egiteko zailtasuna ere sentitzen zutela azpimarratu dute: “Gogoan dut asko kostatzen zitzaidala aldaketei aurre egitea”, “Banandu zirenean nire bizitza erabat aldatuko zela pentsatu nuen.”. Hala ere, partaide batek gurasoen banaketarekin “bakea” sentitu zuela erantzun zuen.


Bosgarren galderan (“Gurasoen banaketak zure emaitza eta errendimendu akademikoan eragina izan zuela uste duzu? Nola?”) laginaren % 33,3k (n=8) ezetz esan zuen eta erantzuna justifikatzean batek eskolako emaitza txarrak ez zirela gurasoen banaketatik, baizik eta berak ikasi nahi ez zuelako aitortu zuen. Beste batek, adierazi du ikasketetan guztiz murgilduta egon zela eta gurasoen banaketak ez zuela inolako

eraginik izan. Hala ere, badaude kontrakoa adierazi dutenak, hain zuzen ere partaideen % 66,7k (n=16). Hauek gurasoen banaketak haien errendimendu akademikoan hainbat eragin ezberdin ekarri zituela erantzun zuten, hala nola, gela barruan despistatuago egotea, kontzentrazioa mantentzeko zailtasunak izatea, etxerako lanei garrantzia ez ematea, arduragabekeria, azterketak ez gainditzea eta horren ondorioz maila errepikatzea... Horrez gain, partaide batek besteen arreta deitzen saiatzen zela aipatu zuen: “Bai, ez nuen behar adina lan egiten eta besteen arreta deitzen saiatzen nintzen, denetaz paso egiten nuen”.

Seigarren (“Gurasoen banaketak nire izaeraren garapenean eragina izan zuela uste dut”) eta zazpigarren (“Gurasoen banaketak nire ikaskideekin neukan harremanean eragina izan zuela uste dut”) itemak beste esparru batzuetan gurasoen banaketak izan zuen eragina ezagutzeko egin ziren. Partaideei itemetan agertzen ziren baieztapenekin zuten adostasuna adierazteko, 1-5era zihoan eskala linealean balore bat aukeratzea eskatu zitzaizen, 1 “Ez nago batere ados” eta 5 “Gutziz ados” izanda. Emaitzak hurrengo grafiketan ageri dira:



3. Grafika: Gurasoen banaketak nire izaeraren garapenean eragina izan zuela uste dut.



4. Grafika: Gurasoen banaketak nire ikaskideekin neukan harremanean eragina izan zuela uste dut.

Irakasleek partaide hauen emozioekiko eta sentimenduekiko interesa erakutsi zuten ezagutzeko zortzigarren itema prestatu zen (“Ikastetxeko irakasleek nire emozioekiko eta sentimenduekiko interesa erakusten zutela uste dut”). Honetan ere partaideek 1etik 5era zihoan eskala linealean itemenean agertzen zen baieztapenarekin zuten adostasun

mailaren arabera balore bat aukera behar zuten. Laginaren % 58,3k (n=14) esaldiarekin ez zeudela ados erantzun zuten, izan ere, “3” baino txikiagoak ziren baloreak aukeratu zituzten (“1” edo “2”). Hortaz, hauen irakasleek ez zuten haien emozioekiko eta sentimenduekiko interesik izan. % 16,7k (n=4) erdiko puntua aukeratu zuen (“3” balorea), erakutsi zuten interesa erdi mailakoa izan zela adieraziz. Laginaren % 25ek (n=6), berriz, irakasleek interesa erakutsi zutela erantzun zuten, itemarekin zuten adostasun maila handia zelako (“4” edo “5”).

Galdetegi honekin bukatzeko, galdera bat formulatu zitzaaien gazteei: “Denboran atzera egin ahal izango bazenu, zure ustez zer egin zezakeen zure eskolak gurasoen banaketa prozesuan zure egokitzapena errazteko?”. Erantzunen artean aipatuena irakasleek enpatia eta inplikazioa erakustea izan da: “Nire ustez, nire irakasleak gehiago inplika zitezkeen nire emozioetan eta nirekin hitz egiten saia zitezkeen, nola sentitzen nintzen jakin eta nire jokabidearen aldaketa horren zergatia bilatu. Uste dut gurasoen banantze prozesu horretan nire irakasleetako inork ez zuela jakin nire egoera ulertzen edo kudeatzen. Ez zuten jakin nirekin enpatizatzen”. Eskolaren eta familiaren arteko komunikazioari ere garrantzia eman diote. Horrez gain, gela barruan egoerari normaltasuna ematea eta gaia ikasgelan lantzea aipatu dute: “Eguneroko bizitzako arazo posibleen eta horien konponbide posibleen irakasgai bat sartzea”, “Nire ustez, emozioen kontrola izateko ariketak urteko programaren barnean egon beharko litzateke. Ez bakarrik arazoak izan dituzten ikasleentzako prest baizik eta ikasle guztientzat”. Bestalde, eskolak psikologoaren laguntza eskaintzea aipatu da. Hala ere, galdera honetan badaude bere garaian eskolak primeran ekin zuela bere gurasoen banaketan aurrean: “Nire kasuan uste dut eskolak behar nuena lagundu zidala”, “Tutoretza nahiko egin ziren egoera ahalik eta gehien normalizatzen saiatzeko”.

3.3. Gurasoen erantzunak


“Guraso banatuen esperientzia” izeneko galdetegiari dagokionez, lehenengo eta behin, parte hartzaileei haien seme alabek zenbat urte zituzten bikote ohiarekin banandu zirenean galdetu zitzaaien (“Zenbat urte zituzten zure seme-alabek zure bikote ohia eta zu banandu zinetenean?”). Kontuan hartuta, momentu hartan pertsona batzuek bi seme alaba zituztela, laginaren hurrengo ehunekoek hurrengo erantzun zuten: % 26,7k (n=4) 1-3 urte; % 53,3k (n=8) 4-6 urte; % 33,3k (n=5) 8-10 urte; % 20k (n=2) 11-15 urte eta gainontzeko % 6,7ak (n=1) hemezortzi urte.

Hurrengo bi itemetan seme-alabengan bi esparru ezberdinetan ikusi zituzten aldaketen inguruan galdetzen zen: bigarren itemean seme-alaben jarreran edo aldarlean (“Zure banaketa prozesuan seme-alaben jarreran edo aldarlean aldaketarik ikusi zenuen?”), eta hirugarren itemean seme-alaben emaitza akademikoetan (“Zure banaketa prozesuan seme-alaben emaitza akademikoetan aldaketarik ikusi zenuen?”). Partaideen % 73,3k (n=11), seme-alaben jarreran aldaketa ikusi zuela adierazi zuten, hau da, “Bai” aukera aukeratu zuten. Laginaren beste % 26,7ak (n=4), berriz, ez zuela inolako aldaketarik ikusi erantzun zuten “Ez” aukera hautatuz. Hirugarren itemari erantzunez, partaideen % 20k (n=3) seme-alaben emaitza akademikoetan aldaketa ikusi zuela erantzun zuten “Bai” erantzuna aukeratu baitzuten, gainontzeko % 80ak (n=12), ordea, “Ez” aukera hautatu zuten aldaketa ikusi ez zuela adieraziz.

2. itemean “Bai” aukeratu zutenei zein aldaketa adierazteko eskatu zitzaie, eta erantzunen artean gehien aipatzen den erantzuna “Tristura” izan da (n=5): “Sentikorrango zegoen eta askotan negar egiten zuten garrantzi handirik ez zuten gauzengatik”, “Tristeago zegoen, erraz egiten zuten negar”. Tristeago egoteaz gain, gurasoekiko jarreran aldaketak egon zirela aipatzen dutenak (n=2) badaude: “Desobedientzia”, “Neskatoak Manoleteren heriotzaren errua ere egozten zidan.”. Horretaz aparte, beste batzuk (n=2) segurtasun falta aipatzen dute: “Ondoez fisikoa jaikitzean eta segurtasun falta”, “Ama non zegoen jakiteko zalantzak”. Hala ere, jarrera hobera egin zuela aipatzen duena badago.


3. itemean “Bai” aukeratu zutenek, zein aldaketa ikusi zuten zehaztean gehien errepikatzen duten erantzuna emaitza akademikoen txartzea da (n=2): “Noten okertzea, batez ere nire alaba txikienean”, “Bai, azterketetan nota txarragoak ateratzen hasi zen, klasean oso despistatuta zegoen eta ez zituen irakasleak entzuten”. Bestalde, erantzunen artean autoritate pertzepzioan ziurgabetasuna aipatzen da (n=1): “Zalantzak zituen nork zeukan aginte gehiago eta nori egin behar zitzaion kasu gehiago”.

Laugarren (5.grafika) eta bosgarren (6.grafika) itemak hezkuntzaren inpikazioa aztertzeke asmoz prestatu ziren. Erantzunak jarraian dauden 2 grafikotan ageri dira:



% 86,7 (n=13): "Bai"
% 13,3 (n=2): "Ez"

5.Grafika: Seme-alaben tutoreak eta beste irakasleek zure eta zure bikote ohiaren banaketa egoera ezagutzen zuten?.



% 33,3 (n=5): "Ez"
% 46,7 (n=7): "Bai"
% 20 (n=3): "Ez dakit"

6.Grafika: Seme-alaben tutoreak eta irakasleek noizbait banatze prozesuan zure seme-alaben sentimenduetan interesa jarri zuten?.

Seigarren itemari dagokionez, ("Garrantzitsua iruditzen zaizu egoera horretan dauden ikasleen egoera hobeto ulertzeko eta jarraibide lagungarriak ezagutzeko irakasleek formakuntza jasotzea? Zergatik?"), partaideen % 73,3k (n=11) baietz erantzun du: "Bai, adin horretako haurrek konfiantza handia dutelako irakasleak esaten duenarekin eta seguru sentiarazten dituelako, eta normaltasuna eta babesa ematen baldin badakite, uste dut haurrek hobeto eraman dezaketela", "Bai, oso garrantzitsua iruditzen zait irakasleak formakuntza izatea egoera hori etxean bizi duten ikasleei laguntzeko; izan ere, agian, horien laguntzarekin, bikote banatueta seme-alabak babestuago senti daitezke, eta etxetik kanpo laguntza izan dezakete. Azken finean, haurrek denbora asko pasatzen dute irakasleekin". Hala eta guztiz ere, badago gurasoen banaketa soilik esparru pribatuari dagokiola pentsatzen duena.

Aurrekoarekin lotuta, zazpigarren eta azken itemean eskola guztietan gurasoen banaketa bizitzen ari diren ikasleentzako laguntza programa lagungarria ikusten zuten galdetu zitzairen. Ia partaide guztiek, hau da, laginaren % 93,3k (n=14), eskoletan egoera horretan dauden ikasleei laguntza eskaintzeko programa egotea lagungarria izan ahal zela erantzun zuen: "Bai. Egoera normalizatzen, haurra gertutik jarraitzen eta laguntza eta beroa ematen lagun dezake", "Bai, horrela ikastetxeko irakasle guztiek jarraibide batzuk jarraitu ahal izango lituzkete ikasle horiek hobeto ulertzeko".

4. Ondorioak

Gaur eguneko gizartean, bikote baten banaketa normaltasunez hartuta dago, izan ere, bikote batek bizi ahal duen egoera hau orain dela asko ezagutzen dugu eta gaur egun askotan gertatzen da. Kontuan hartuta gai honek gure gizartean duen gaurkotasuna,

ikasgeletan haien gurasoen banatze prozesua bizi duten edo bizitzen ari diren zenbait ikasle egon ahal dira. Hortaz, hezkuntza ez litzateke gaitik at geratu behar.

Lan honetan, helburu orokor bat planteatu zen: banaketaren errealitatea aztertzea. Horretarako, hiru galdetegi sortu ziren eta bakoitzak bere helburu zehatza izan zuen. Lehenengo eta behin, hezkuntzako profesionalen iritzia eta errealitatea jaso zen. Fernandez eta Godoy-ek (2002) eta Robledok (2010) adierazi zutenarekin bat eginez, profesional hauek esan zutenaren arabera, batzuetan gurasoen banaketak ikasleengan aldaketa emozionalak edo akademikoak eragiten ditu, hala nola, tristuraren agerpena, segurtasun falta sentitzea, beldurrak izatea edo arreta mantentzeko zailtasunak izatea. Guzti honek, noski, ikasgela barruan duten jarreran eta portaeretan eragin zuzena izan dezake, eta irakasleek errealitate hau ezagutu beharko lukete. Aldaketa hauek ez dira beti ematen, izan ere, Portugalek (2012) adierazi zuen bezala, gurasoen arteko harremanak zerikusi handia dauka eta, ikasle bakoitzaren egoera bakarra da. Hala ere, horrek ez du esan nahi irakasleek ez dutenik aurkituko ikasgeletan horrelako egoera bizitzen ari den ikaslerik. Horregatik, gaur eguneko hezkuntzako profesionalen ustetan, gai honen inguruan formakuntza, informazio eta baliabide falta ikaragarria dute, hezkuntza sistemak gai honi ematen dion garrantzia urria agerian utziz. Errealitate hau ikastetxe publiko, pribatu zein itunpekoetan dagoena da, hau da, eskola motak ez du eraginik egoerari aurre egiteko moduan. Hortaz, gauzak horrela, irakasleek ikasleen egoera hobeto ulertzeko eta hauen ongizatea bermatzeko, formakuntza berriak jasotzearen beharra dute. Hau unibertsitateak hasi ahal den lana izan daiteke, izan ere, Hezkuntza Fakultatean ematen diren ikasgaien artean ez da inoiz gai hau lantzen eta gai honek duen gaurkotasunari ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Horrez gain, irakasleen ustez eta Ollerorekin (2015) bat eginez, ikastetxeetan giza baliabide gehiagoren presentziak laguntza eskeini ahalko zuen, hala nola, psikologoarena edo irakasle gehiagorena. Horrela, ikasle hauei behar duten arreta eman ahalko litzateke eta haiekin denbora gehiago pasatu. Gainera, ikastetxeek ikasle hauekin eman ahal diren egoeren aurrean esku-hartze plan bat izatea oso baliagarria izan daiteke, izan ere, irakasle bakoitzak jakin ahalko luke ikasle hauekin nola jokatu.

Bigarrenik, Lehen Hezkuntza garaian gurasoen banaketa bizi izan zutenen esperientzia ezagutu nahi izan zen, eta horretarako, 24 partaidek parte hartu zuten. Hauek esan zutenaren arabera, gurasoen banaketak arlo emozionalean zein akademikoan eragina

izan zuen, eta honek ere bat egiten du Fernandez eta Godoy-ek (2002) eta Robledok (2010) adierazi zutenarekin. Kasu gehienetan, partaideek haien irakasleek ez zutela egoerarekiko interesik edo enpatiarik erakutsi adierazi zuten. Hau irakasleek zuten formakuntza, informazio eta baliabide faltagatik izan zitekeen, azken finean, egoera horri nola aurre egin eta ikasleei nola lagundu ez bazekiten, interes falta hori gaiari buruz zuten ezjakintasunagatik izan zitekeen. Horrez gain, aipatzekoa da Cifuentesek eta Milicic-ek (2012) besteekiko interakzioan arazoak izatea nahiko ohikoa izaten dela adierazi zuten arren, ikerketan honetan ez dela horrelakorik hain argi ikusi, izan ere, laginaren gehiengoak besteekiko harremanean ez zuela eraginik izan aipatu baitu.

Hirugarrenik, banaketa prozesuan seme-alabak Lehen Hezkuntzan zituzten gurasoen esperientzia ezagutu zen. Hauek aipatu zuten bezala, eta beste bi kolektiboekin bat eginez, banaketak seme-alaba batzuegan eragina izan zuen. Irakasleek bezala gurasoek haur guztiek ez diotela aldaketa horri berdin erantzuten adierazi zuten, baina hala ere, hain ondo pasatzen ez duten ikasleen ongizatea kontuan hartu beharko litzatekeela defendatzen dute. Gainera, ikerketa lan honetan ikusi ahal izan da gurasoek ez dituztela eragin akademikoak askotan ikusten, baina ikasleek eta irakasleek bai. Azken hauek ikasleen aldaketa akademikoetaz konturatzea, beraiekin denbora asko ematen dutelako izan daiteke, eta azken finean haiek dira egunero-egunero ikasleen aurrerapen akademikoa ezagutzen dutenak. Horregatik, errealitate hau kontuan hartuta, hezkuntza sistema egoerari aurre egiteko prestatu beharko litzateke.

Familiaren eta eskolaren arteko harremana dela eta, emaitzak ikusita argi dago, batzuetan, eskolaren eta familiaren arteko komunikazioa ez dela egokiena izaten. Guraso batzuek, batzuetan, ez diete irakasleei zer egoeratik igarotzen ari diren jakinarazten edo ez dira interesatzen tutoreek seme-alaben sentimenduetan interesa jartzen duten ala ez. Musitok (2004) bere lanean adierazten duen bezala, haurraren garapen psikologiko eta kognitibo egokia bermatzeko haurraren mikrosistemaren (familia, gurasoak eta eskola) inplikazioa, parte hartzea eta komunikazioa ezinbestekoa da. Hortaz, ezinbestekoa da gurasoak kontzientziaztea ikastetxearekin beharrezkoa den harremana eta komunikazioa izatea seme-alaben garapenerako oso garrantzitsua dela.

Ikerketa honekin gurasoen banaketak seme-alabengan eragina izan ahal duela errealitate bat dela ikusi da. Gaur eguneko hezkuntza sistemak ez ditu eragin hauek kontuan hartzen. Horregatik, ikerketan gai honen inguruan hezkuntzako profesionalek duten

formakuntza urria, eta hezkuntza sistemak gurasoen banaketa bizitzen ari diren ikasleei laguntzeko dituen baliabide eskasak agerian geratu dira. Gainera, lan honetan parte hartu duten hiru kolektiboek hezkuntza-sistema inplikatzeko eta etorkizuneko irakasleak gai honetan hobeto prestatzea garrantzitsua dela esatea oso esanguratsua da, izan ere, haiek izan dira gurasoen banaketaren ondorioak gertutik bizi izan dituztenak, eta nola eragin diezaioke hezkuntza-prozesuari ere ezagutu dutenak.

Lanari bukaera emateko balorazio pertsonala egitea gustatuko litzaidake. Egin nituen praktiketan, arreta handia deitu zidan guraso bananduak zituzten ikasle kopurua oso altua zela. Gainera, gurasoen banaketa zela eta, ikasturte bereko bi ikasle ez ziren bere etaparik onena pasatzen ari, eta hori beren errendimendu akademikoan eta alderdi emozionalean islatzen zen. Gertaera honek interes handia sortu zidan eta gaien pixka bat sakontzeko nahia piztu zidan. Ikerketa honi esker hobeto ulertu dut gurasoen banaketak zer suposatu dezakeen ikasleentzat. Horretaz aparte, etorkizun hurbil batean ikasgela barruan zer errealitate aurkitu dezakedan ezagutu dut, baita egoerari aurre egiteko hezkuntzan dagoen hutsunea ere. Egoera hori gaurkotasun handikoa izan arren, gaur eguneko hezkuntza sistemak ez dio merezi duen garrantzia ematen eta hau nire uste apalean aldatu beharra dago. Beraz, nire ikuspuntutik oraindik ikasteko eta aurrera egiteko asko egin behar da, eta aurrerako urrats horrek gizartea kontzientziazetik hasi beharko luke.

Azpimarratzekoa da, lan honetan parte hartu duen lagina mugatua izan dela, eta ez duela inola ere EAE-ko errealitatea guztiz aztertzen. Hala eta guztiz ere, ekarpen oso interesgarriak egin ditudala uste dut, batez ere, gaiari eman beharko litzaiokeen garrantziaz kontzientziazatutako dudalako, eta gaur egun oraindik dauden beharrak agerian utzi ditudalako.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguado, A. (2005). Entre lo público y lo privado: sufragio y divorcio en la Segunda República. *Ayer*, 60, 105-134.
- Álvarez, N. (1998). La pareja de hecho: perspectiva jurisprudencial. *Derecho privado y constitución*, 12, 7-68.
- Sanz, M., Corral, S., Aperribai, L., Iriarte, L. eta Martínez-Pampliega, A. (2011). *Egokitzen. Programa de intervención post-divorcio*. Deustuko Unibertsitatea.

- Arch, M. (2010). Divorcio conflictivo y consecuencias en los hijos: implicaciones para las recomendaciones de guarda y custodia. *Papeles del Psicólogo*, 31 (2), 183-190.
- Bases de datos y gráficas de la Agencia Europa Press. (2021). *Epdata.es*. 2021eko urriaren 19an <https://www.epdata.es/> -tik berreskuratua.
- Cantón, J., Cortés, M. R. eta Justicia, M. D. (2002). Las consecuencias del divorcio en los hijos. *Psicopatología Clínica, Legal y Forense*, 2(3), 47-66.
- Castaño-Peñalva, M. (2016). *El divorcio en la Segunda República española: Antecedentes y desarrollo* [Doktoretza-tesia. Murtziako Unibertsitatea]. TDX. <https://www.tdx.cat/handle/10803/398870>
- Castro, T. eta Seiz, M. (2014). *La transformación de las familias en España desde una perspectiva socio-demográfica* (VII. txostena). Fundación Foessa. http://www.foessa2014.es/informe/uploaded/documentos_trabajo/131120140450_06_7884.pdf.
- Crespo, E. (2021). ¿Cómo enfrentarse a una ruptura de pareja? Diferencias entre separación y divorcio. *CRESPO LAW abogados de familia*. <https://www.elenacrespolorenzo.com/es/diferencias-separacion-divorcio/>.
- Cifuentes, O. eta Milicic, N. (2012). Crisis en la infancia: ¿qué piensan, sienten y dicen los niños sobre la separación de sus padres? *Universitas Psychologica*, 11(2), 469-480.
- Domínguez, S. (2010). La Educación, cosa de dos: la escuela y la familia. Temas para la educación. *Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 8, 1-15.
- Euskal Estatistika Erakundea (d.g). *Eustat.eus*. 2021eko urriaren 16an https://www.eustat.eus/documentos/opt_0/tema_507/elem_12678/definicion.htm 1 -tik berreskuratua.
- Euskal Estatistika Erakundea (d.g). *Eustat.eus*. 2021eko urriaren 19an <https://www.eustat.eus/indic/indicadoresgraficosvista.aspx?idgraf=16335&opt=0&tema=507> -tik berreskuratua.
- Escalona, S. (2014). *Retos del profesorado para afrontar situaciones de separación y divorcio en el ámbito educativo*. [Gradu amaierako lana. Zaragozako Unibertsitatea]. DOCPLAYER. <https://docplayer.es/8221198-Retos-del-profesorado-para-afrontar-situaciones-de-separacion-y-divorcio-en-el-ambito-educativo.html>.
- Fariña, F., Novo, M., Arce, R. eta Seijo, D. (2001). La importancia de los programas de intervención en la escuela para paliar los efectos negativos en los hijos de la separación y el divorcio de los padres. *Aspectos didácticos y organizativos de la educación. Tendencias actuales*, 1, 281-288.
- Fernández, E. eta Godoy, C. (2002). *El niño ante el divorcio*. Pirámide.
- García, J. (2018). El hijo de padres separados o divorciados. *Pediatría Integral*, 22 (4), 165-172.
- Gifre, M. eta Guitart, M. E. (2012). Consideraciones educativas de la perspectiva ecológica de Urie Bronferbrenner. *Contextos Educativos Revista de Educación*, 15, 79.
- Guerrero, P. (2003). Los niños y el divorcio. *Padres y Maestros*, 278 , 23-25.
- Hall, R. (d.g.). *¿Por qué mi escuela debe tener un departamento de psicología?*. Rogers Hall. <https://blog.rogers.edu.mx/por-que-mi-escuela-debe-tener-un-departamento-de-psicologia>.
- Instituto Nacional de Estadística. (2021). *Encuesta continua de hogares (ECH). Año 2020*. INE.

- Largo, R. H. eta Czernin, M. (2005). *Hijos felices de padres separados*. Ediciones Médici.
- Lege organikoa 2/1932, martxoaren 12a, dibortzio legea. (Gaceta de Madrid, 72. zenbakia, 1932ko martxoaren 12a, 1794). Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1932/072/A01794-01799.pdf>.
- Morgado, B. (2003). El divorcio desde una mirada de los niños. Una revisión teórica. *Familia. Revista de Ciencias y Orientación Familiar*, 26, 49-62.
- Muñoz-Ortega, M. L, Gómez-Alaya, P. A. eta Santamaría-Ogliastri, C. M. (2008). Pensamientos y sentimientos reportados por los niños ante la separación de sus padres. *Universitas Psychologica*, 7 (2), 347-356.
- Ollero, A. (2015eko ekainaren 3a). El psicólogo como profesional esencial en el sistema educativo. *El mundo*. <https://www.elmundo.es/comunidad-valenciana/2015/06/03/556f2002ca4741814d8b4586.html>
- Ortega, C. (2016). *¿Cómo afrontar el divorcio en la escuela?*. [Gradu amaierako lana. Kantabriako Unibertsitatea]. Ucrea. <https://repositorio.unican.es/xmlui/handle/10902/9318>.
- Parkinson, L. (2005). *Mediación Familiar*. Gedisa.
- Peraita, L. (2015eko martxoaren 29a). Más de 50.000 menores se convierten cada año en hijos de padres separados. *ABC*. <https://www.abc.es/familia-padres-hijos/20150329/abci-padre-hijos-divorciados-201502201308.html>.
- Portugal, A. (2012ko urtarrilaren 17a). El divorcio no es el problema. *Sinc*. <https://www.agenciasinc.es/Reportajes/El-divorcio-no-es-el-problema>.
- Presas, García. (2007). Reseña de "La mediación: una solución a los conflictos de ruptura de pareja" de Trinidad Bernal. *Anuario de Psicología Jurídica*, 17, 219-221.
- Real Academia Española. (2020). Matrimonio. *Diccionario de la lengua española*. 2021eko urriaren 17an <https://dle.rae.es/matrimonio>-tik berreskuratua.
- Robledo, M. (2010). Profesores y mediación familiar como alternativa para una mejor adaptación de los niños/as ante el divorcio. *Intervención psicoeducativa en la desadaptación social*, 3, 31-40.
- Segura, C., Gil, M. J. eta Sepúlveda, M. A. (2006). El síndrome de alienación parental: una forma de maltrato infantil. *Cuadernos de medicina forense*, 43-44, 117-128.
- Sosa, M. (2021eko irailaren 27a). Los divorcios, separaciones y nulidades sufren en 2020 la mayor caída en dos décadas debido a la pandemia. *El País*. <https://elpais.com/sociedad/2021-09-27/los-divorcios-separaciones-y-nulidades-sufren-en-2020-la-mayor-caida-en-dos-decadas-debido-a-la-pandemia.html>.
- Tejedor, A. (2015). *El síndrome de alienación parental: Una forma de maltrato*. EOS.